



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
203. zkia . 2007ko urria



**ARRAUNLARI ETA TXIRRINDULARIEN
ARTEKO TOPAKETA**

www.hondarribia.org / argitalpenak / Hondarribia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



NAUTICA
PLAYAUNDITXASO



SI HONKOKI EN KIRAI YANIMAI

VOLVO

SOLE

MARINER

EVINRUDE

NAUTICA PLAYAUNDITXASO
Plaza Deportivo 3-4
Hondarribia
943-641534 - 943-384881
fax 943 644900
www.playaunditxaso.com

Bordari Satarka lehiaketako lanak aurkezteko epea azaroaren 5ean amaitzen da



Zabalik dago jadanik XXIV. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa. Urtero Hondarribiko Udaleko Euskara Batzordetik antolatzen den ipuin eta olerkien lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak bi asteko epea dauka lana entregatzeko, azaroaren 5eko eguerdiko hamabietan amaitzen baita.

Bi lehiaketa desberdin daude, Bordarirena ipuinei zuzendua eta Satarkarena olerkiei. Lehiaketa bakoitzean bi maila desberdintzen dira, hain zuzen adin nagusikoak diren eta ez direnentzat.

Hemezortzi urtetik gorakoek A maila osatuko dute bi lehiaketetan. Kasu hauetan garaileak 800 euroko saria eta oroigarri bat jasoko du.

Bigarren sailkatuak aldiz, 400 euro eta oroigarria eskuratuko ditu. B mailan parte hartzen dutenentzat, sariak 400 eta 250 eurokoak izango dira. Hortaz gain, Hondarribiko lan onenari beste sari bat gordetzen zaio atal bakoitzean.

Aurkeztutako lanek aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute, eta gaia librea. Hortaz gain, zenbait baldintza bete behar dira lana baliagarritzat bezala hartua izan dadin. Helduen mailan, ipuinak gutxienez hiru orrialdeko luzera izango du eta gehienez hamarrekoa. Olerkien kasuan, gutxienez 50 lerro izango ditu lanak, eta gehienez 150.

Ipuinen neurriak

B mailari dagokionez, ipuinak 2 eta 6 orrialdeetakoak izan beharko du eta olerkiak ordea, 40 eta 120 lerroetakoak.

Idatzia Euskara Batzordean aurkezterakoan, beste zenbait baldintza bete beharko ditu egileak. Izenburua, egilearen izenordea eta bertakoa den edo ez zehaztea. Sobre itxi batean azalean, aurkeztu den lanaren titulua eta egilearen izenordea jarriko da, eta barnean, garrantzizkoak diren beste zenbait datu gehitu beharko ditu: izen eta deiturak, helbidea eta telefono zenbakia.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URRIAN ETA AZAROAN

21- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
28- Iraola San Pedro, 5	943 641027
1- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
4- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea	943 644316
11- Almajano Mendelu, 26	943 640068
18- Alameda Harresilanda, 9	943 645798

TXANDAKO OKINDEGIAK URRIAN ETA AZAROAN

21- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
28- Garmendia Portuan	943 641136
1- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
4- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
11- Garmendia Portuan	943 641136
18- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212

Emeki elkarteak udazkeneko ikastaroak hasi ditu

Gaur egun Hondarribia, Irun, Hendaia, Lezo eta Olereta-ko 150 emakume bazkide biltzen dituen Emeki elkarte hondarribiarrak, ikasturte berrirako antolatu dituen lehen ikastaroei hasiera eman die. Zentzu honetan, bertan parte hartu ahal izateko bazkide izatea ez da ezinbesteko baldintza. Montse Garmendia, elkarteko presidentaren esanetan, "emakumeen artean jarduera komunak eginez ongi pasatzea da helburua".

Nolanahi ere, Emeki elkartearen helburua "ongi pasatzeaz gain, emakumeei zerbitzu garrantzitsua eskaintzea" ere bada. Bistan denez, azken urte hauetan, hizkuntza ikastaroak edota defentsa pertsonalerako teoria eta praktika ikastaroak antolatu dira Emeki elkartearen. Garmendiak dioenez, "gauza ezberdinak antolatzeko aukera beti dago, taldeak sortu eta interes hainbat jarduera komunak araberakoa".



Urtean zehar egindako lanekin erakusketa bat egiten du urtero Emeki Elkarteak

Gazte Informazio Bulegoak 'Aizue lehiaketa' jarri du abian



Gazte Informazio Bulegoa San Pedro kalean dago

Gazte Informazio Bulegoak 'Aizue Lehiaketa' jarri du abian. Helburua oporretako gomendioak jasotzea da, hau da, bakoitzaren aisialdi edo oporraldian ezagututako lekuaren berri jasotzea, ondoren beste bidaiarientzat erabilgarria izan dadin.

Lehiaketan Gipuzkoan bizi, lan egin edo ikasten duten gazteek har dezakete parte, eta bi kategoria egongo dira. 12-17 urte bitarteko gazteak, alde batetik, eta 18-34 urte bitartekoak bestetik. Nahi beste gomendio aurkez daitezke, baina gomendio bat ematerakoan, bi arrazoi, zergatik gomendatzen den modu laburrean azalduz. Gomendioak argazki batekin joan beharko du.

Lehen kategoriaren irabazleak i-poda edo argazki kamera irabaziko du eta bigarren kategoriakoak i-poda edo gustuko oporralditxoa.

Gipuzkoako Gazte Bulego bakoitzak kategoria bakoitzeko zozketa bana egingo du. Gazte Informazio Zerbitzurik ez dagoen herrietatik egindako gomendioekin, Foru Aldundiak beste zozketa bat egingo du.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Gripearen aurkako txertoa jartzeko kanpaina urriaren 31n amaituko da

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 400.000 laguni gripearen aurkako txertoa jartzea aurreikusi du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, aurtengo kanpainaren baitan. Datorren astelehenean abiatuko da txertoak emateko kanpaina, eta urriaren 31ra arte iraungo du. Hartarako baliatuko den aurrekontua 1.560.000 eurokoa izango da.

Txertaketa urtero errepikatzearen garrantzia nabarmendu zuen Gabriel Inclan Osasun sailburuak, txerto guztien batuketak gaitzaren aurkako erresistentzia handitzen duelako. 65 urtetik gorakoek artean %70ek jasotzen du urtero txertoa. Kopuru hori "altua" dela esan zuen Inclanek, eta kanpainaren helburu nagusia betetzen dela: gaitza larria izan daitekeen taldeetan arriskua murriztea.



Aurtengo kanpainak 400.000 pertsoneri zuzendua dago.

Aitor Kerejeta Gipuzkoako ordezkarietako bat izango da EUDELEN

Aitor Kerejeta, Hondarribiko Alkatea, Eudelek joan den irailaren 19an egingako ezohiko Batzar Orokorrean, Gipuzkoako Lurralde Batzordeko bederatzi ordezkarien artean aukeratu izan zen. Bilbo-ko Euskalduna Jauregian egin zen ekitaldia.



Aitor Kerejeta, Hondarribiko Alkatea


Batzar berean, Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea, aukeratu zen EUDEL elkarteke buru. Ordurarte, Karmelo Sainz de la Maza, Leioako alkatea, zen presidentea.

Egun 251 udalerri eratzten dute EUDEL, orain 25 urte jaioetako elkarte euskal udalen ahotsa izateko beste erakunde batzuekiko harremanetan.

Hau da 2007-2011 bitarte Eudeleko Gipuzkoako Lurralde Batzordea osatzen duten alkateen zerrenda:

Ana M^a Urchueguia Asensio
Aitor Kerejeta Cid
Susana Corcuera Leunda
Alfredo Etxeberria Murua
Juan Carlos Merino González
Igor Iturain Ibarguren
Antton Arbulu Ormaechea
Irene Berasaluze Lazkano
Jon Urien Crespo

LASARTE-ORIAko Alkatea
HONDARRIBIko Alkatea
DONOSTIAko Zinegotzia
ELGOIBARKo Alkatea
ERRETERIAko Alkatea
AIAko Alkatea
ZUMARRAGAKo Alkatea
MENDAROKo Alkatea
ZARAUZKeko Alkatea



Birgaitze lanak egin dira Portuko espaloietan



Duela gutxi konpondu den espaloietako bat

Udalak Portuko elizaren inguruko kaleetako espaloiak konpondu ditu irailean. Domingo Egia kalean eta argazkian agertzen den Matxin de Artzu kalean, batek baino gehiagok istripu txikiren bat izan du, urteetan zehar hautsita egon diren baldosekin. Hiritar askok eginiko eskariari kasu egin dio honela Udalak.

Udal liburutegia neguko ordutegiarekin hasi da

Udal Liburutegia (Zuloaga Etxea) neguko ordutegiarekin hasi da, irailaren amaiera arte goizez irekitzen baitzuen. Ondorioz, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara irekiko da. Larunbatetan aldiz, ordutegia 10:00etatik 13:00etara izango da.

Informazio gehiagorako, 943 111295 telefonora deitu.

Jaizkibel mendiko xendak ireki dira



Gregorio Berrotaran, aurten egindako aurkezpen batean

Uda osoan zehar itxita egoten diren xendak ireki ditu Nekazaritza eta Mendi departamentuak. Gregorio Berrotaranek zinegotziak aditzera eman duenez, "mendiko xendak eta auzo-bideak sasiz zein sastrakaz garbitzen ari dira udal-zerbitzuek egun hauetan".

"Uda garaian auzo-bide horietan sortzen diren zuloak estaltzen aritu gara" jarraitzen du Berrotaranek. Makinak lanean hasi dira, bide bazterrak garbitzeko asmotan. Berrotaranen esanetan, "garai hauek txarrak dira belarrak asko haizten baitira eta bidegurutzetan". Hortaz, oztopo bihur ez daitezen hobetzeko halabeharrezkoa bilakatzen da Udalaren eskuhartzea.

Uda denboraldian Eusko Jaurlaritzaren aginduz ixten dira urtero, bertatik pasa daitezkeen pertsonak zikinkeriak utzi ez ditzaten. Iaz, 800 kilo zabor inguru bildu zituzten Prebentzio Komunitarioak eta INEMek sustatutako langabetuentzako programa bati esker.

Gregorio Berrotaran, Nekazaritza eta Mendi arloko zinegotziak egunean-eguneko lanak aurkitzen ditu mendian beti. Azaldu duenez, "uda garaian auzo-bide horietan sortzen diren zuloak estaltzen aritu gara". Haatik, aste honetan makinak lanean hasi dira, bide bazterrak garbitzeko xedez. Berrotaranen esanetan, "garai hauek txarrak dira belarrak asko haiztzen baitira eta bidegurutzetan ikuspena kentzen dute". Hortaz, zirkulazioa hobetzeko halabeharrezkoa bilakatzen da Udalaren eskuhartzea.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...

EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

foto
FRANAN

BAKARRIK

3,58.-euro

Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Txingudiko Zerbitzuek beste kanpaina bat aurkeztu dute ostalaritza sektorean beiraren bilketa hobetzeko



Kanpaina berriak era honetako irudirik ez ikustea bilatzen du

Txingudiko Zerbitzuek eta Ecovidriok beste sentsibilizazio kanpaina bati ekin diote Irun eta Hondarribiko 490 ostalaritza establezimenduetan gaikako bilketa eta beirazko hondakinen birziklatzea bultzatzeko. Kanpaina horrek bost aste iraungo du eta ostalaritza sektoreari informazioa eta laguntza ematea du xede eskualdean beiraren bilketa hobetu eta areagotu ahal izateko.

Datozen egunetan, ingurumen hezitzaile bat Hondarribiko 104 establezimenduetara joango da eta horietako bakoitzari informazioa eskainiko dio eta dituzten beharrei erantzungo die. Bisitaldi horretan, beira biltzeak eta ondoko birziklatzeak duen garrantziaren berri emango zaio jabe bakoitzari. Horretarako, beiraren bilketarekin konpromisoa duen lokal bakoitzari eranskailu bat emango zaio establezimendu laguntzaile gisa identifikatzeko.

Txingudiko Zerbitzuek beirazko 23 edukiontzi kendu eta beste batzuk jarriko dituzte, vacri sistemakoak, urriko bigarren hamabostalditik aurrera, horietako 6 Hondarribian jarriko dira. Vacri edukiontzien besteak bezala funtzionatzen dute, baina badute berezitasun bat, ontzia zuzenean edukiontzia lotzeko aukera

ematen dutela, ontzi hori azkar eta erraz hustu ahal izateko, eta era horretan ez dira beirazko hondakinak banan-banan sartu behar izango edukiontzian.

Horretarako, Txingudiko Zerbitzuek, eremu horietatik hurbil dauden ostalaritza establezimenduen jabeek, kanpaina honekin konprometitu badira, giltza bana emango diete edukiontzi berri hori irekitzeko, eta ontzi gurgildun bana ere emango diete beirazko hondakinak errazago bildu eta eramateko.

Era berean, Txingudiko Zerbitzuek edukiontzi berriaren funtzionamendua aurkeztu eta azalduko dute edukiontzi tradizionalak dauden ostalaritza establezimenduetan, horien iritzia jakiteko, eta ekimen hau zabalduz gero, parte hartuko ote luketen ziurtatzeko.

San Pedro kalean dauden ostalaritza establezimenduei zerbitzu honetan alta emateko aukera emango zaie oraindik ez badute parte hartzen. Atez ate egiten da hemen beiraren gaikako bilketa.

Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten hamaika ordezkarietatik lau hondarribiarak dira. Aitor Kerejeta, Ion Elizalde, Juan Mari Altuna eta Florentxio Arrieta izango dira gure ordezkariak.

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea, izango da Mankomunitateko presidentea eta Aitor Kerejeta presidente-ordea.

Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen Administrazio Kontseilua honako hauekin osatzen da: Jose Antonio Santano, Javier Cia, Maite Cruzado eta Maria Eugenia Iparragirre Irundik, eta Aitor Kerejeta eta Ion Elizalde Hondarribitik.



**BARR
ONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Kai Zaharraren eraberritze proiektua 2009an hasiko da

Kai Zaharraren eraberritzea Hondarribiko hirigunea guztiz eralda dezakeen proiektua izango da legegintzaldi honetan. Baina proiektuaren erredakzio lanetan abiatu ahal izateko, aldez aurretik eman beharreko urratsak asko dira.

Horrela, Aitor Kerejeta, Hondarribiko alkateak jakinarazi duenez, "une hauetan Eusko Jaurlaritzako Portu departamenduak baimena ematea eta lur-eremua mugatu arte itxaron behar da". Horrexegatik, zaila suertatzen da obrak noiz hasiko diren zehaztea. Nolanahi ere, Udalaren ustetan, "baimena 2007a amaitu aurretik jasotzen bada, 2009an hasi daitezke".

Egungo Benta-Zaharreko aparkalekua desagertu eta lurazpian kokatu nahi da. "Eraberritze plan honetan, ezinbestekoa da Benta-Zaharren espazio publikoa hiriarentzat berreskuratzea", azaltzen du Kerejetak. Izan ere, Benta-Zaharreko plataformaren eraispina eta Butroi pasealekua Bidasoa etorbidearekin lotzea aurreikusi da.

Itxas-Etxearen zerbitzuak hobetzeko helburuarekin, alboko eremuan eraiki egingo da. Proiektu orokorra dena batera egiteko atzeratu da, egin beharreko lan guztiak aldi berean burutzeko. Anbulatorioari espazio berriak eskaintzeaz gain, "400 ikusleentzako" tokiak izango duen hitzaldi-areto bat eraikiko da.



Gaurko aparkalekua lurpekoa izatera pasako da



Arrantza karroak itxura hau dauka gaur egun

JATETXEA
LA HERMANDAD DE PESCADORES



Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema



ARGAZKIAK
ORDU BETEAN

Itsasargi 3
 Tel. 943 64 57 65
 20280 HONDARRIBIA

Irun eta Hondarribiko udalek ez dute pista luzatzearen aldeko testua sinatu



Aireportuko pistan lur hartzera doan hegazkin bat

Irailaren 27an bilduta, Ortzibia elkarte publikoa osatzen duten Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Ganbera eta Donostiako Udalak, AENA erakundearen mehatxua ekiditeko eta "aireportuaren bideragarritasuna bermatzeko" akordioaren agiria izenpetu zuten. Irun eta Hondarribiko Udaletako ordezkariak, berriz, ez zuten aireportua handitzeko eskatuz eginiko agiria izenpetu.

Herritarren interesak defendatzeko interesarekin, hartutako erabakian abstenitzeko jarrera hartu zuen Aitor Kerejetak, alkate hondarribitarra. "Aireportua luzatzen bada, Mendelu auzoan hustu beharreko pabiloi eta etxeetako jabeei, horren truke kalte-ordainak ziurtatu beharra dute erakundeek". Hondarribiak ez sinatzeko arrazoia, Mendelu auzoko enpresa eta etxeak lekuz aldatzeak izango lukeen eragin ekonomikoaren inguruan oraindik ez dela azterketarik egin.

Agiria sinatu dutenek, segurtasun neurriok ezartzeko atzerapen edo luzapen bat eman dezala eskatu diote Espainiako Sustapen Ministerioari. Gutxienez, egungo Plan Zuzentzailea aldatu artean. Hartarako, lehiaketa prozesua gelditzeko eskatu diote. Halaber, Plan Zuzendaria aldatzeko eta egungo pista 300 metro luzatzeko proposamena aurkez dezatela eskatu diete.

Modu batean zein bestean, Mendeluko pistaren luzatzearen kontrako koordinadorak, Ingurumen Txostena egitea falta dela gogoratu duela. Urte eta erdi, Sustapen Ministerioak sinatutako gutun batean, aireportua ez zela luzatuko hitz ematen zuen Gobernu Zentralak. Baina orain, gauzak alda daitezkeela dirudi. Koordinadora honen bozeramaile den Javier Camposek azaldu duenez, "Eusko Jaurlaritzak egindako ingurumen azterketek, bere garaian zioten, bertan ezin zela pista luzatu, baina Madrilgo txostena da balioa daukan bakarra".



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Saindua Gaztelekuan datozen bost hilabeteetarako ekitaldi ugari antolatu dira

Saindua Gaztelekuak datozen bost hilabeteetarako ekintza sorta oparo bat prestatu du 12 eta 29 urte bitarteko gazteentzat. Ikastaroak, irteerak eta tailer ugari antolatu dira, baina hortaz gain, Sainduak irekita dauzka argazki laborategi bat, ikasgela, bilera gela, espresio gela, internet gela gazte zein elkar-teentzat, elkarte gela bat barra eta ostalaritzako azpiegiturarekin, mahai, aulki eta antzeztoki batekin, eta nola ez, topagune bat, ezinbestekoak diren mahai joko, musika, mahai-tenisa, futbolina, aldizkariak, CDteka, DVD eta Play Station famatuarekin...

Parte hartzeko baldintzetako bat adinarena da. Ikastaroak 12-29 urte bitartekoentzat dira, eta gainontzeko guztia 12-17 urtekoentzat. Ekintzak aurrera atera daitezzen gutxienez 8 partaide izan beharko dira.

Ikastaroei dagokienez, gitarra/baxua, perkusioa, kapoeira eta antzerkia eskainiko dira. Urriaren 22tik aurrera hasiko dira, arratsalde, baina aurretiaz izena eman beharko da Saindua Gaztelekuan.

Iaz bezala, irteerak antolatuko dira. Arettera bat egingo da eta bi Gourette-ra. Hala ere, Gaztelekutik gazteek eman ditzaketen proposamenak kontuan hartuko dira eta horren arabera irteerak antolatu.

Tailerrei dagokienez, aurten bi antolatu dira: manga eta musika tailerrak. Hortaz gain, Gabonetarako txapelketa bat antolatu da DBHko lehen eta laugarren maila artean ikasten ari direnentzat.

Tailerrak dohainik dira eta ikastaroak aldiz ordaintzekoak, 35 euroren truke. Izen-emateak urriaren 10etik 19ra egin behar dira Saindua Gaztelekuan.

Edozein duda izanda, deitu 943 643198 telefonora, arratsalde 17:00etatik 21:00etara.



Saindua Gaztelekua arratsalde irekitzen da



Jarduera ugari egin daitezke Gaztelekuan

Aise
BIZKAI

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Hondarribian markatutako atuna Ameriketan agertu da



George Morris amerikarra, arrantzatutako atun euskaldunarekin

2005eko uztailaren 25en Peio Olazabalek bere 'Tia Rosario' ontzian markatu zuen atun bat Estatu Batuetan agertu da bi urte geroago. Hain zuzen Massachussetts estatuan, Atlantikoan egin da aurkikuntza, George Morris arrantzaileen eskutik.

Hondarribian uretaratua izan zenean, atunak 68 zentimetro neurtzen zituen eta 5,5 kilo pisatu. Orain aldiz, 114 zentimetro neurtzen ditu eta 30 kilo pisatu. 775 egun igaro dira eta arrainak 6000 kilometro egin ditu bi kontinenteen artean.

"Ozeano Atlantikoa alde batetik bestera gurutzatu duen atun bat aurkitzea, eta gero berriz itzulera bidaia hastea gauza arraroa da" esan du AZTIko biologoa den Lorenzo Motosek. Orain artean egin-dako ikerketa zientifikoek diotenez, Ipar Atlantikoan zimarroien bi populazio aurkitzen dira, baina oraindik ez da ziurra independientek diren edo ez.

Azken urte hauetan gero eta gobernu gehiago sartu dira heriotzarik gabeko arrantza proiektuan. Atunak arrantzatu, aztertu, neurtu eta markatu ondoren berriz ere itsasoratu egiten dira. Estatuaren artean mantentzen den lankidetzari esker, arrain hau beste kosta batean agertzen denean, ikerketak burutzen dira, oraingo honetan gertatu den bezala.

Kirol kaiak zazpi urte beteko ditu azaroan

646 ontzi daude urte osoan amarratuak



Kirol kaiaren egungo irudi bat

Hondarribiko Kirol Kaiak datorren azaroan zazpi urte beteko ditu, lanez lepo aritu diren zazpi urte. Atzean geratzen da 2000 urteko azaro hura, irekierako hilabetea.

Ordur geroztik, Euskadiko Kirol Portuak-ek (EKP) kudeatzen duen azpiegitura honek, nautikaren alorra sustatu eta indartu egin du Txingudi eta Bidasoaldea bezalako inguru berezi batetan.

646 dira une hauetan Kirol Kaiaren dauden ontziak. EKP-k Euskal Herrian kudeatzen dituen azpiegituren artean kairik handiena da Hondarribikoa. Gaintontzekoen gaitasuna aztertuta, Oriok 294 ontzi dituela ikusiko dugu, Getariak 290, Donostiak 375 eta Bermeok 346.

Kirol Kaia egiteko behar izan diren inbertsioak oso handiak izan dira, 19 milioi euro baina gehiago. Horrek zerbitzu ezinhobeak eskaintzen dizkio kaiaren erabiltzaileari eta hori gutxi balitz, duela hilabete gutxi gune komertzial eta zerbitzu-etako beste bat eraki da, ontziak dauden tokitik oso hurbil.

UNAI EMERY

hondarribiar entrenatzailea Izarren Ligan



Irudi aski ezaguna da Unai Emery-rena hondarribiar gehienentzat. Laster 36 urte beteko ditu, eta U. D. Almeriaren entrenatzailea da iaztik. Bigarren Mailan hartu zuen taldea, eta Liga hasiera makal bat egin ondoren, berehala hasi ziren partidua irabazten bata bestearen atzetik, eta ekai-nerako jaso zuen ereindakoa, Lehen Mailara igotzea. Historia xelebrea du Emeryk, Hondarribia Futbol Elkartearen jokatzeko hasi, Infantiletan Realera, han ez zituen merezi hainbat aukera izan eta 1996an Toledora joan zen. Azkenen Bigarren B mailako Lorcan amaïtu zuen 2003 denboraldian bere jokalaria ibilbidea. Entrenatzaile lanetan hasi, eta gutxi izango dute hain urte gutxitan hainbeste arrakasta. Bilbon Athletic-en aurka jokatu ondoren egon ginen berekin, alde batetik bestera mugitu gabe dabil, telefonoa belarri ondoan uneoro.

Zer moduz doa Lehen Mailako esperientzia?

Orain arte dena oso ondo. Etxetik kanpora maila ona ematen ari gara, baita etxean ere, baina puntu bat edo beste joan zaigu, nahiz eta merezi ez genuen. Ni oso konten nago Almerian, jendea oso ondo portatzen da hemen, eta orain artean, esperientzia oso positiboa da.

Zein da aurtengo denboraldirako helburua?

Hemen oso argi daukagu helburua Lehen Mailan mantentzea dela. Aurtengo gara, eta kategoriari eustea lortzen badugu, pozik egoteko modukoa izango da. Kalitate handia dago, baina orain arte ongi gabiltzala uste dut. Une hauetan 12. postuan gaude, etxetik kanpo bi partida irabazi ditugu, berdinketa bat Bilbon eta Real Madrid-en aurka galdu, baina galdu genuen moduan. Hala ere, etxetik zenbait puntu joan zaizkigu, batzuk merezi gabe. Ezin dugu lo hartu eta sailkapenean atzeko tokiak ahalik eta laster utzi behar ditugu.

AXOLA INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

**RESTAURANTE
ASADOR**

XINERRE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

Kontratu aldetik nola zabilta?

Aurten bukatzen zait, 2008ko ekainean. Oraindik ez dug ezer hitz egin, garrantzitsuena ekipoa da. Ni oso pozik nago, eta eskerrona besterik ez dut Almeriari, Lehen Mailan entrenatzeko aukera eman didate, eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat. Nik behintzat hemen jarraitzeko asmoa dut, denak oso ongi portatzen dira nirekin eta oso gustura nago.

Hondarribia Futbol Elkartean hasi zinen, ezta?

Bai. Nik Hondarribian Infantiletan jokatu nuen, eta bigarren urtean Realak deitu eta hara joan nintzen. Oso oroitzapen onak ditut Futbol Elkartekoak eta hara joaten naizenean ahal izanez gero eta partidurik bada, ikustera joaten naiz, eta hango jendearekin egotera.

Realean urte asko egon zinen, eta gero zer egin zenuen?

1996 arte egon nintzen Donostian. Gero handik Toledora joan nintzen, eta han 2000. urte arte. Gero, handik Racing de Ferrol-era joan nintzen, eta han bi denboraldi jokatu. Uda hartan Burgo-sera joan nintzen, baina taldeak arazo ekonomiko handiak izan zituen eta kategoriaz jaitsi zen. Bi astez bakarrik egon nintzen han entrenatzen, gero handik Leganes-era joan bait nintzen urte bat jokatzeko. Jokalari bezala azken urteak Lorcan eman nituen, eta han 2003-2004 denboraldi erdian, entrenatzailea bota zuten eta nik hartu nuen bere tokia. Hortik aurrera, historia ezaguna da. Bigarren Mailara igo, urte betez han mantendu ginen, oso denboraldi ona eginez eta gero Almeriara. Ezin naiz kexatu gauzak nola doazen ikusita.

Entrenamenduak nola izaten dira Almerian?

Lehen mailako gainontzeko taldeetan bezala da. Gaur bertan, goiza libre dauka gure arratsaldean partidu bat jokatu behar dugulako, baina bestela entrenamenduak egunero, batzutan goiz eta arratsaldez... Besteak beste.

Pozik bizi da Unai Emery. Gauzak ondo doazkio, Lehen Mailan dabil eta gaztea da, eta Espainiako

Ligan dauden bertoko entrenatzaileen artean, izen ona hartzen ari da. Ziur denboraldi hau amaitzen denean ez zaizkiola eskaintzarik faltako. Beti ongi eta lasai hitz egiten du, edukazioz, eta futbol kontuan neurrigabekoa da, xehetasun guztiak kontrolatzen ditu. Bere entrenatzaile ibilbideak sekulako etorkizuna dauka, eta bere herri-tarrak pozik dauzka. Jende asko egoten da igande eta astelehenetan Almeriak zer egiten duen erne, baita Valladolidek ere zer egin duen Joseba Llorenterekin.



Emery, taldearen entrenamendu bat zuzentzen



Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

EUSKO-MEKO



1.690 €

**Boogies
QUADS
125 cc**



1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Euskaldunon antzinako sustraiak (eta VIII)



Martin Iturbe

"ABEREAK" eta "GARAIAK" ditugu gaur apiagai, euskaldunon antzinako sustraiei begira ari garen honetan.

L) ABEREAK

Abereek sekulako garrantzia dute euskal mitologian, bai beren "tasun" engatik, bai egiten dutenagatik, edo azalatzen duten itxuragatik edo beren margoengatik. Abereen sinbologia gustiek zerkusi handia dute erroik totemismoaz eta zoolatriaz

Ezinekoa zaigu hemen, garbi dagoenez, abere guztien esanahia deskribatzea banan bana; orokorki behintzat, esan dezagun gizonak abereengandun alde batetik ez-gizona (bestea, beldurgarria) ikusten duela, eta bestetik -kontraesana badirudi ere- gizonaren hurbilekoena naturaren erdian.

Gizona aldakorra eta nahastaile den bitartean, aberea, berriz, adiera bakarreko bezala azaltzen da beti, bai onerako, bai txarrerako.

Aipagarrienak dira abereen artean, eta heuren inguruan esaera eta mitologiak aurkituko dugu herri batetik bestera: astoa, tximeleta, erlea, belea, enara, katua, oilarra, okila, zaldia, etab...

"Astoak eta idiak bedeinkatuak direlako (Jesusek Belenen bedeinkatuak), bidez doazenean gauza txarra non dagoen yakiten dabe. Orexegatik asto bati oratuta dabilen bidaztiari etxako zori txarrik yazotzen".

R.M. Azkuek jasoa

"Behin xori-kunte guziak uthuri baten xahatzen (garbitzen) ari ziren. Ama Birjinaren uthuria zen.

Orduan eroia (belea) hora da. Besteak eraiten dakote: guk bezala hik ere xahezak".

Eroiak eran zien: xankoak ederegi tiak hor erabilteko.

Orduan Yainko hunak eran zakon: "Bi ilabetez, uztailan eta agorilan, eztuk hurik edan ahal izanen; egariz narakaz ariko hiz".

R.M. Azkuek jasoa.

M) GARAIAK

Izaki bizidun nahiz bizigabeak sakratu bezala bizi izan baditu lehen euskal gizonak, eza zaigu harrigarri egingo garaiak ere sakratutzea. Lehenago ere esan dugu, sakratutze honen lekuko bezala, nola eguna gizonari emana den eta gaua, berriz, lurraren azalean dabilzan izpirituei eman

zaien.

Asteko egunen izenak ere badute sakratuaren zantzu bat, eta, batez ere, honako hauek: "ostegun" izenak -ortzi egun-, "ostiral" izenak-ortzi irargi hitzen kontrakzioz osatua- eta "igande" hitzak- agian "igo haundi" ote?, ilargi betearen jai haundi batzu ospatzen ziren egun izenetik letorke, agian. Hilabeteen izenak, berriz, ilargiari loturik daude eta honen esanahi sakratua gorago argiturik geratu da. Hilabete bakoitza, bestalde, esaera eta formula zahar eta ohikune bereizi ugari lotua dago, aroaren adierazgarri, (agorila, iraila...) edo eginbeharraren gigoangarri (joraila, azila...) edo erromatar nahiz ezagutzen ez ditugun erroien adierazgarri, (Martxoa, otsaila...)

"Ostegunak, ortzegunak, eguenak, Naparoko ibar askotan

garizume-aurreko iru ostegunak askariz ospatzen

dituzte. Septuagesima-ondoko ostegunak iru izen

ditu: "AITAKUNDE", "Bidankozen", "GIZAKUNDE", "Uztarro zen, "IZAKUNDE", "Baztanen.

Sexagesima-ondoko osteguna emakumeentzakoa da. Bere

izena "EMAKUNDE" da tokirik gehienetan. Bidankozen

"AMAKUNDE, NESKAXKUNE", Ultzaman.

Quincuagesima-ondoko ostegunean gizon eta emakume

alkartzen dira eta izen egokia du: "OROKUNDE".

Baztanen "ORAKUNDE".

R.M. Azkuek jasoa

Badira, oraindik, euskadunaren aintzinako erlijioaren aztarnak giza biiztzako gertaerei ego eginbeharre loturik agertzen direnak nolanahiko ohituretan eta edonon. Hala nola, eskontzetan edo hiletetan ikus ditzazkegunak. Oraingo hemen ez ditugu jaso, Gerora, beharbada, hartaratuko gara eta zerbaiten aipamena egiten saiatuko gara.

Azken zortzi agerpenatan erabil ditudan gaiak erabili ahal izateko, laguntza paregabea eman dit E.Capdevila-Esteban Aguirrerren liburuak. "JAINKOAREN BILA GIZONA". Nere aldetik eskerrak berari. Nere buruan hautsak estaliak zeuzkan gaiak astinarazi bait dizkit, eta aldizkari hinetan agertu ahal izateko aukera eman era bai.



TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12



kai zahar



ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA



AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Muliateko etxebizitzek izen bereko **baserria desagertaraztea** ekarri dute



Muliateko Babes Ofizialeko etxebizitzak egiteko, inoren gustokoak ez diren pausak eman behar dira. Horien artean, urriaren lehen egunean egin zen Muliate baserriaren desagitea. Jostaldi pilotalekutik hasi eta saihezbide berrian aurrera eginda, 400 etxebizitza eraikiko dira, horietako 240 babes ofizialekoak izango direlarik. Hortaz gain, Udalak inguruan ikastetxe bat sortzeko asmoa dauka.

Egitasmo hauek burutzeko, urratsetako bat Hondarribiko historiaren une askoren lekuko den Muliate baserria desagitea izan da. 2003. urtean Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elo-segi, Kote Guevara eta Koldo Ortégak idatzitako "Hondarribiko Baserriak" liburuan irakur dezakegunez, 'Muliate' toponimoaren lehen lekukotza 1534koa da, baina zubi bat aipatzeko. Baserriari buruzko lehen datuak, 1768ko Parrokiako Artxiboetan aurkitu dira.

Duela aste gutxi arte, Lizarraga Irastorza familia bertan bizi izan da.

1. Baserriaren irudi historiko bat, XX. mende erdikoa.

2. Aurten otsailean egin zuen elur egun batean ateratako irudia. Aurrean, garajea zuen eta atzekaldean dagoena da baserria.

3. Desagertu aurreko irudi bat, aurtengo udaberrian ateratakoa.

4. Makinek bere lana egin ondoren, betirako desagertu da Muliate baserria.

Psilocybenea etxea goitik behera aldatzen ari dira

Psilocybenea etxea berritzeko aurrekontua 374.401,51 eurokoa da.

CONSTRUCCIONES ORALUR S.L. enpresa burutzen ari da lanak

2008ko otsailerako amaitzea espero da



Irudietan ikus daitekeenez, Amutalden dagoen Psilocybenea eraldatzen ari dira .

Donibane Lohitzun-Hondarribia lasterketa hamargarren urtez

Urriaren 28an ospatuko da 1500 korrikalarirekin



Antolatzaileek helmugara iristen diren guztiei kalitatezko kamiseta bat oparituko diete, urtean zehar prestakuntza fisikoa egiteko hautatua.

Edozein zalantza edo argibiderako www.donibane-hondarribia.com guneko foroa erabil dezakezue, edota hkt@wanadoo.es gunera zuzendu.

Euskal zirkuitu ofizialean jadanik bere tokia aurkitu duen lasterketaren edizio berria duela gutxi aurkeztu da.

Bertan aditzera eman zenez, 1500 korrikalarientzat eman da baimena. Irailean internet bidezko izenemate epea ireki zen, eta lasterketa baina egun gutxi aurretik itxi.

Urtero bezala, autobus zerbitzua egongo da Hondarribitik Donibane Lohitzunera. Autobusak erabili ahal izateko beharrezkoa izango da izen ematea egiterakoan lortutako dokumentazioa aurkeztea.



Gure Koro

Koro jubilatuta zaigu. Jubilatuta eta hurrengo egunean Donejakue bidea egi-tera joan zaigu egun bakar bat ere galdu gabe. Horrelakoxea da Koro.

Azken 26 urteotan Hondarribiko Udaleko euskara teknikari lanetan izan dugu. Koro eta euskara, euskara eta Koro. 1981eko otsailean hasi zen lanean udaletxean. Garai zailak, dena egiteke, zer esanik ez euskara arloan, nondik hasi, zeri heldu...

Erronka itzela Kororentzat zalantza izpirik gabe. Hondarribiko goizuetar honen gaitasuna eta gogoia ordea, neurrigabea. Laster jakin izan zuen garai zein egoerari neurria hartzen. Oso ahul zegoen euskarari arnasa ematen hasi zitzaion, arnasa elkarri ematen, euskara beti izan baita Kororen iturria. Euskarak eta Hondarribiak asko zor diote Korori. Zein zorte ona Euskarak zurekin topo egin izana!!

Langile aparta, izaera alaikoa, baita beharrezko nortasunaren jabe, bihotz handikoa. Koro bezalako teknikariaren zinegotzi izatea mauka ederra. Kolore anitzeko zinegotzioi egokitu zaigu Kororekin lan egitea. Bere agurra izan den honetan denak oroitu gara gure Koro kuttunaz, merezi duela-ko jakina!!

Orain bizitza beste era batean biziko duzu Koro, baina ziur naiz beti bezain umoretsu, alai eta eskuzabal jokatzeko jarraituko duzula. Hori ikasi baitut nik zugandik. Euskararekiko maitasuna ahaztu gabe noski.

Denagatik eskerrik asko Korito.

Ion Elizalde



Koro Eraso eta Ion Elizalde, egun alkatordea baina aurrez Euskara zinegotzi izana, Udalak agurra eman zion egunean



Jaizubia elkartean egindako omenaldian ateratako irudi bi,



Arraunlari eta txirrindularien arteko topaketak ikusmin handia piztu zuen

Ederra izan zen arraunlari eta txirrindularien arteko topaketa. Hondarribia Arraun Elkartea (HAE) eta Hondarribia Txirrindulari Elkartea (HTE) osatzen duten zenbait kidek ikusmin handia sortu zuen kirol froga bat burutu zuten duela aste gutxi.

HTEk Ama Guadalupekoa trainerua omendu nahi zuen denboraldi amaieran, eta horretarako kirol dema bat egitea bururatu zitzaien. Arrauna eta txirrinda uztartuko zituen froga bat nahi zuten, eta horrela, bi traineru osatu ziren: bata HAEko arraunlariek osatua, eta bestea HTEko txirrindulariek osatua. Nor baina nor

aritu ziren leihan, Arraun Elkartetik atera eta espigoiaren altueran ziaboga eman ondoren berriaz ere Elkartera itzuli ziren.

Trainerua utzi eta txirrindak hartuta, Jaizkibel mendira igotzea zen erronka. Denbora guztiak batu, eta sailkapen orokor bat burutu zen. Azken denborak ikusita, txirrindulariak gailendu ziren, baina hori gutxienezkoa zen.

Ikusmin handia sortu zuen Hondarribian ekitaldiak, eta badirudi datorren urtean errepikatu egingo dela.



Osertz Alday eta Patxi Vila, igoeraren une batean

Argazkiak: Amaia Gorrotxategi



Txirrindulari Elkarteko presidentea eta Arraun Elkarteko patroia pozik kamararen aurrean



Txirrindulariek maila bikaina erakutsi zuten arraunean, ia denak aurretik arraunean arituak dira

Pilota Eskolak indarrarekin hasi du ikasturtea

Hondarribiko Pilota Eskolak aurtien lehen aldiz eman dituen zesta punta ikastaroetan 20 gazte eta helduk eman dute izena.

Iñigo Salaberria, Pilota Eskolako presidentea, oso pozik azaldu da aurtengo izen-emateen emaitzarekin: "Arrakasta itzela da guretzat lehenengo aldiz zesta punta klaseak emateko aukera izan eta hogeitaz lagun biltzea, eta gainera, adin guztietakoak".

Zesta punta ikastaroak, Jai-Alive enpresa profesionaleko Juan Antonio Compañón Konpa eta Iker Foronda puntisten eskutik.

Esku pilota klaseetan, bestalde, "45 ume apuntatu zaizkigu aurtien eta benetan pozik egoteko gauza da", esan zuen Hondarribiko Pilota Eskolako presidentek



Pilotalekuak Zesta Puntako Munduko Txapelketaren partiduak ikusi ditu

Futbol elkarteak web orrialdea egin du

www.hondarribiafe.com gunean Elkartearen berri guztiak aurki daitezke



Web orrialde berriaren azaleko irudia

Hondarribia Futbol Elkartea indarrez hasi du 2007-2008 denboraldia. Bederatzi talde ditu talde berdeak, Gorengoen Mailetik hasi Alebin kategoriara heldu arte. Orotara 200 kirolari eta 20 entrenatzaile mugitzen dira Foru kaleko instalazioetatik.

Web orrialdean honen eta beste gauza askoren berri aurki dezakegu. Elkartearen historia, astero talde desberdinek lortzen dituzten emaitzak eta sailkapena, atzo eta gaurko argazkiak, udan eta neguan antolatzen dituen futbol eskolak, larunbat goizero jokatzeko den eskolarteko futbola, Jexux Mari Mendizabalek egindako ereserkia...





1595ean Aita Santuak arrantzaleei emandako **Bula** Kofradian dago

Aberatsa da oso Hondarribiko Done Pedro Arrantzaleen Kofradian dagoen artxiboa. Denetik aurki daiteke han, itsasoarekin loturiko gaiei buruz erreferentzia ugari daude. Baina denen erregina, 1595. urteko maiatzaren 12an Clemente VIII Aita Santuak Hondarribiko arrantzaleen Kofradiari emandako Bula da.

Zer da Bula bat? Donostiako Elizbarrutiaren web gunean begiratuta, definizio hau topatu dugu: Aita Santuaren idazki oro goi mailako hizkeraz idatzia. Idazki hauek itxi egiten dira, bai metalezko borla batez, bai argizarizko zigilu batez. Konstituzio apostolikoak bularen moldean aurkezten dira sarritan.

Bula latinez idatzita dago, baina Hondarribia aldizkariak 1997ko irailean argitaratu zuen ale berezian, 'Arrantzaleak: ur eta lur' alean euskarara transkribatuta dago. Kofradiaren egoitza berria ireki zenean argitaratu zen ale berezi hura.



Kofradiak mimos gordetzen du dokumentu historikoa



Funtsean, esan nahi duena zera da: arrantzaleei baimen antzeko bat ematen die mezetara joan ezin dutelako, hau da, itsasoan daudenez, eta mezetara joan ezin dutenez, barkatuak daudela. Testuan zera irakur daiteke: "(...) Komunio Sakratua hartuta ahoz ezin izan badute bihotzen inbokatzen badute Jesusen izena (...)".

Hau bezalako dokumentu asko gordetzen dira Arrantzaleen Kofradian. Behar bezala gainera. Hondarribiko Arrantzaleen Kofradiari buruz zerbait gehiago jakin nahi baduzu, sartu zaitetz www.kofradia.org web orrian. Duela gutxi berritua izan da, eta merezi du begirada bat ematea.

Bularen kopia bat paretan zintzilikatua dago

Euskal Herriko Pintxo Txapelketa Hondarribian ospatu da



Antolatzaile eta babesleen ustetan, Euskal Herriko Pintxo Txapelketa oso arrakastatsua izan da, eta errepikatzeke prest daude.

Euskal Herriko II. Pintxo Lehiaketa hasi berri da. Guztira 70 pintxo lehiatuko dira. Gipuzkoako 33 taberna hartzen du parte, horietatik 4 Hondarribikoak (Batzo-ki, Enbata, Gran Sol eta Olatu jatetxeak), Bizkaiko 21ek, Nafarroako 11k eta Arabako 6 izena eman dute txapelketan. Urriaren 4a bitartean taberna hauetan izango da lehiaketara aurkeztutako pintxoak dastagai. Urriaren bostean jakitera emango dute zer pintxo lehiatuko diren Hondarribiko finalean. Donostiako Zurriola Maritimo zuzenean sailkatuta dago finalerako, Gipuzkoako txapelduna delako.

Hilaren 9an epaimahaiak hamar pintxo aukeratuko ditu eta horiek lehiatuko dira hurrengo egunean txapela lortzeko. Lehiaketako pintxoek bi ausikitan jateko modukoak izan behar dute eta asko jota, bi euroko prezioa izan behar dute. Hego Euskal Herriko zenbait gastronomia adituk osatuko dute epaimahaia.

Lehiaketaren babesleak honako hauek dira: La Bacaladera, Marqués de Arienzo, Oreka Kaiku, Okin Gourmet eta Udaletxea dira.

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Prebentzio komunitarioak **ikasturte berria** hasi du

Kurtso berri baten hasieran gaude, eta honekin batera, Prebentzio Komunitarioaren Udal Zerbitzuan, aurrera eramaten ditugun taldeetan berriro ere parte hartzeko eskaintza egiten dizugu.

Guztiok bizi gara talde ezberdinen barruan. Taldean bizitzeko, familia batean bizitzea, klub edo elkarte batean parte hartzea, koadrila bat izatea, talde batean lan egitea, ikastetxeren batean ikastea eta abarrekin nahikoa da.... Talde hauetan laguntasuna, gozamenak, kezkak, ardurak, laguntza.... azaltzen ditugu.

Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzukoek, talde ezberdinetan parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzen dugu. Pertsona guztiek edozein taldeetan aurki ditzaketen edo taldeari ekarri ahal dizkioten onurak nabarmentzen ditugu. Horregatik, Zerbitzuan martxan dabilen talderen batean parte hartzeko aukera eskaintzen dizugu.

Bizi dugun momentuaren arabera, bizipenak, kezkak, pentsamenduak eta abar azaltzeak duen garrantzia ezaguna zaigu..., batez ere antzeko momentu edo egoeran aurkitzen diren edo aurkitu diren pertsonekin. Horregatik, eskaintzen ditugun taldeek ez dute pertsonak berezkoak dituen taldeak ordezkatu nahi, osatu, baizik. Mota guztietako pertsonak topatzeko aukera eskaini nahi dugu: gurasoak, neskak eta mutilak... bizi duten momentuagatik, bere esperientziak eskaintzeko eta zure esperientziaz aberasteko.



*Prebentzio Komunitarioaren egoitza
Harresilanda kalean dago*

Adinaren arabera hemen dago talde-aukera:

Gazte nerabeentzat giza laguntza taldeak

12 eta 18 urte bitarte baldin baduzu.

Haur txikiak dituzten gurasoentzat giza laguntza taldeak

10 urte bitarteko seme-alabak baldin badituzu.

Gazte nerabeak dituzten gurasoentzat giza laguntza taldeak

11 eta 18 urte bitarteko seme-alabak baldin badituzu.

Hiru taldeak 2007ko urrian hasiko dira, topaketak hamabostean behin izaten dira ordu eta erdiz. Talde hauek Prebentzio Komunitario-ko udal Zerbitzuko profesionalen (Psikologoak edo Hezitzaileak) gidaripean egongo dira.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, lehenbailehen deitu **943 114000** telefonora.

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva Ionia - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba



Guraso Eskolaren bilera baten irudi bat

2007-2008 GURASO ESKOLA

EZAUGARRIAK

Ordu eta erdiko saio bat, arratsaldetan. Hasiera 2007ko urrian eta amaiera 2008ko otsailean.
 Saioak ikastetxean burutuko dira.
 Zerbitzuko adituek edo kolaboratzaileek zuzendutako saioak, garatu beharreko gaien arabera.

AURTENGO GAIAK

1. Gure seme-alabak ezagutzen: Adinaren ezaugarriak
2. Komunikazioa familian
3. Anai- arriben arteko harremanak
4. Frustrazioa: Garatzeko aukera bat
5. Nire familiaren altxorak. Zergatik nire familia desberdina den.

Interesatzen bazaizu zure seme-alaben ikastetxean informazioa eskatu.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Lehen trainerua Hondarribian egin zen 1750 inguruan



Koldo Ortega

Traineruaren asmakuntzak euskal kostaldearen bizitza erabat aldatu zuela ez da gezurretan aritzea. Historialari askok traineruaren sorrera XIX. mende erdialdean jartzen dute, baina Xabier Agote, itsas ondarea zaintzea helburu duen Albaola elkartearen presidentea, lehen trainerua Hondarribian eraiki zela dio, eta 1750. urte inguruan gainera. Jende gutxi dakien datu baten aurrean gaude, eta Agote liburu bat prestatzen ari da traineruaren historiaren inguruan.

XVIII. menderarte euskal arrantzaleek bakailaoa arrantzatzen zuten urrutiko uretan, baina Utrecht-eko Itunaren ostean, gabe geratu ziren eta txardina izan zen euren lehen arrantza. Ordutik hasi ziren ontzi berriak eraikitzen. Kontestu honetan koka daiteke.

Agotek egin dituen ikerketek Henri-Louis Duhamel du Monceau frantziar politikari eta zientzilarirengana eramane zuten. Frantziako Zientzien Akademiako kide zen. XVIII. mendean zehar nabigazio eta arrantza tekniketako buruzko liburu bat idazten ari zela, 1755ean Hendaia iritsi zen, Frantziako kosta osoa aztertu ondoren.

Hendaiaiko kaiari buruzko bere ikerketan, Bidasoa ibaiaren beste aldean egindako aurkikuntza baten berri eman zuen. Urte batzuk aurretik, 1750 inguruan, Hondarribiko arrantzale batek ontzi berri bat egin zuela esan zuen, arina eta azkarra, txardinak arrantatzeko ezin hobe zena.



Traineruen historia eta jatorria ikertu du Xabier Agotek

Baionako Merkataritza-Ganberako zuzendariak tesi hau baieztatu zuen, denbora oso gutxian arrantzale hondarribiarren harrapaketek nabarmen egin baitzuten gora. Saldu ezin zituzten txardinak Lapurdin saltzen omen zituzten.

Zientzilaria frantziararen deskribapenak jarraituta, Agotek argi uzten du orduko txalupa hura trainera bat zela. Ontzi arin, luze eta hestuak, kurbadun gila batekin, ontziak errez zentzuz alda zezan eta arrantzaleek maniobrak azkarrago egiteko aukerarekin. 10etik 16 artekoa zen arrantzale/arraunlari kopurua. Honek indar handia ematen zion. Txardinetara hurbiltzen zirenean, 40x15 metroko neurria zuen sarea jaurti eta harrapatzen zituzten.

Amaitzeko, esan Agotaren ametsetakoa bat traineraren inguruko interpretazio gune bat izatea dela. Ez da ideia txarra.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL
Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Solgaren printzipioak

Munduko lehengai hobereak kontsideratzen dira produktu ekologikoen barnean

Solgarek toki geografiko desberdinetan dauzka espezialistak. Hauek munduko lehengai onenen iturriak bilatzen eta aztertzen dituzte.

Gure hornitzaileek egiten dituzte kalitatezko informeei gehituta, gure mikrobiologo eta kimikoen taldeak fabrikazio zikloan sartu aurretik lehengaiko loteak aztertzen ditu. Horrela, honen purutasun, potentzia, eta egiazkotasuna bermatzen dute.

Solgar delakoari buruz jakin beharrekoa

5-HTP (Griffonia simplicifolia -tik) aske itxura (30 eta 60 begetal kapsula)

Triptofano aminoazido bat da, janarietan presentzia ugari ez duena. Transmittzaile neutro honek zerebroan egiten den interakzio katearekin parte hartzen du. 5-HTP triptofano eratorri konposatu bat da, serotonina osaketan aurreratu puntu an dagoenean. Solgareko L-5-HTP %100 forma librean bere biodisponibilitatea handitzen du. Gainera nutriente batzuekin osatuta dago: baleriana, magnesio eta B6 bitamina.

B-COMPLEX C bitaminarekin (100 eta 250 kapsulak)

B bitaminaren funtzioak sinergikoak dira eta interzio honen ondorioz, eguneroko kontsumo eskasia besteetan hutsuneak eragin ditzazkete. B bitaminak hidrosolubleak dira eta ez

dira gorputzean gordetzen. Egutero ordezkaturak izan behar dira eta edozei ugaritasuna kanporatuta. Konplejo honek B bitamina guztiak C bitaminarekin biltzen ditu.

FLAVO-Zink (50 -100 lima-limoi zapoareekin konprimitu)

Zink kopurua handitzean, funtzio prostatikoan eta erresistentzia naturalean garrantzi handia duen mineral bat da. Konprimitu bakoitzak 23 mg zink ematen du glukonatu formaren bidez. Komanigarria da Zinka eztarrian osatu nahi diren kasuetan.



-OATLY natural olio esnea 1l: 2,25 €

6 + 1 dohainik eta 11 + 2 dohainik

-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

3+1 dohainik & 12 +8 dohainik

-LIMA arroza-banilla original esnea 500 gr: 2,65 €

6 + 1 dohainik eta 10 + 2 dohainik

-NATURSOY produktu freskoa (hanburgesa, tofu, seitan, saltxitxa ...)

2 unitate %15

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrrrik gabe

1l: 3,65 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-VITARIZ arroza-txokolate esnea 1l: 2,55 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-Cookies Sprits galletak azukrerik gabe Molen

150 gr: 2,60 €

2+1 dohainik eta 6 + 6 dohainik

-Soja lezitina (ez transgenikoa) 500 gr: 8,95 €

2+1 dohainik eta 2 unitate %20

Arreta pertsonala

¡En HondarriBIO!

txuntxumela
tu pequeño **SUPER BIO**

SERVICIO A DOMICILIO

HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

0943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituen. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren ordezkari hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berri, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabazteko, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagatik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fida garritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburua bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburua bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekia eta hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25



AISIALDIRAKO BEGIRALE TITULUA ESKURATZEKO IKASTAROEN MATRIKULA EPEA ZABALIK DAGO

18 urtetik gora izatea edo matrikulazio-urte barruan adin hori betetzea nahitaezkoa da. Hala ere, eskolak berak eska ditzake baldintza osagarriak.

Trebakuntza-aldi teorikoa eta praktikoa da. Gipuzkoan begirale eta zuzendari tituluak ateratzeko 7 eskola daude. 6 Donostian eta 1 Erreenterian. Honetaz gain, Gizarte eta Kultura Sustatzaile ikastaroa bi eskoletan eskaintzen dute.

Aukera asko dituzu titulua eskuratzeko.
Animatu eta sartu aisialdiaren munduan!!!!

Informazio gehiago eskuratzeko pasa zaitez bulegotik!!!!

Zer egin dezaket?

LURRALDEBUS TXARTELA

Autobusa erabiltzen baduzu, atera ezazu Lurraldebus Txartela bidaiak merkeago egiteko.

Gainera, Foru Aldundiak, deskontuak aldatu ditu eta orain lehenengo bidaiatik murrizketak izango dituzu.

Hauek dira baremoak:

- 1-40 arteko bidaietan: %40ko deskontua
- 41-70 arteko bidaietan: %70ko deskontua
- 71tik aurrera %90ko deskontua

Ez galdu denborarik, eta atera ezazu lehenbailehen. Txartela prentsa denda batzuetan ateratzen da. Hondarribian 3 lekutan egin dezakezu: Zuloaga kalean, Nafarroa kalean eta Rebellin kalean.

Info +: 943 000 117

**eukeni
optika**

mirusia zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 613 803

**Focus
DAILIES™**

Ilusioaren begintza
mola guztiauzkitako

Focus DAILIES

Multimodela berriz erabili

NI

nire begietan
betazurrikoak

Focus DAILIES

**CIBA
Vision**



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL

LA FARMACIA - FARMACIA

San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein da eskultura honen izena



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Zerbitzuan jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Iraileko alean jarritako galderari ia 40 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Ane Alzaga Zubillaga** da. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den eraikina Betherram inguruan dago. Afarirako txartela Udal Euskara Zerbitzuan jaso behar da. Bigarren saria, aldiz, liburu sorta baten irabazlea, **Edu Lasaga** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriaren erdian dagoen eskultura baten inguruan doa. Askotan bertatik pasa izan gara, duela gutxi goitik behera garbitu dute, bai eskultura baita ingurua ere. Baina ze izen dauka eskultura honek? Bat baino gehiago harrituko da eskultura nori zuzenduta dagoen jakiten duenean..

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Zerbitzura, urriaren 31 aurretik, Beko Errota jatetxean bi lagunentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
egunerako plater berriak
gauez, gure karta zabala, Informala

tel.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

XIX. mende bukaerako Matxin de Arzu kalea



Berriro ere iritsi gara hainbat irakurlek hain gustoko duen aldizkariaren atalera. Oraingo hone-tan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Jose Mari Castillok duela urte batzuk argitaratu zuen liburura jo dugu, "Argazkiak Hondarribia atzo" izeneko liburuaren 232. orrialdean irudi eder hau topatu dugu. Hiriaren erdian dagoen Matxin de Arzu kalearen irudi bat da. Etxe bat edo beste mantentzen da ordukoa, baina itxuraz goitik behera aldatu da.

Matxin de Arzu, kondairak dioenez, gogor burukatu zen Frantziarren aurka Hondarribiaren defentsan. Horren sari bezala, Alfontso X.a Erregeak, lur asko oparitu omen zizkion. Gaur egun, hiri erdiko kale garrantzitsu batek bere izena darama. Hemen agertzen denak eta gaurkoak daukan itxu-rak zerikusi gutxi dute, baina biak bai ederrak.

 <i>okindegia • gozategia</i>	 <i>kafetegia</i>
San Pedro 49, bajo 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 641 995	Zuloaga, 8 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 111 656

 M.A.G. ASESORIA AGINAGALDE	GESTIÓN: CONTABLE, FISCAL, LABORAL * SEGUROS
GESTIOA:	
* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOA * ASEGURAK	



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Iraila 2007

JAOTZAK IRILAN

- 1ean: Paul Irastorza Darceles.** Gurasoak: Hernaniko Axier eta Hondarribiko Josune.
4an: Naroa Amunarriz Echebeste. Gurasoak: Hondarribiko Erramun eta Hondarribiko Mirentxu.
5ean: Jon Lera Cuñado. Gurasoak: Irungo Gontzal-Jokin eta Irungo Amaia.
7an: Oihane Alza Echarri. Gurasoak: Hondarribiko Mikel eta Hondarribiko Leire.
10ean: Aimar Amunarriz Olazabal. Gurasoak: Hondarribiko Ioseba eta Hondarribiko Izaskun.
11n: June Ribes Taberna. Gurasoak: Hondarribiko Luis Mari eta Hondarribiko Eider.
12an: Ion Lasa Berrueta. Gurasoak: Irungo Xabier eta Irungo Maider.
12an: Zuriñe Solachi Redondo. Gurasoak: Hondarribiko Haritz eta Donostiko Jezabel.
13an: Amagoia Ardanuy Furundarena. Gurasoak: Bilboko Rafael eta Donostiko Izaskun.
21ean: Egoa Garcia Macazaga. Gurasoak: Donostiko Juan Manuel eta Donostiko Marta.
22an: Leyre Maria Romo. Gurasoak: Donostiko Luis Fernando eta Donostiko Beatriz.
23an: Naia Gonzalez Izeta. Gurasoak: Irungo Jose Miguel eta Hondarribiko Olatz.
25ean: Bidatz Perez Ugarte. Gurasoak: Irungo Miguel eta Irungo Miren Agurtzane.



EZKONTZAK IRILAN

- 15ean: Enekoitz Urtxegi Lasa,** Irungoa eta **Garoa Lekuona Izeta,** Hondarribikoa.
15ean: Alejandro Garcia Alonso, Irungoa eta **Lorena Larrarte Odriozola,** Irungoa.
22an: Daniel Vazquez Briñas, Hondarribikoa eta **Elena Tobalina Idígoras,** Hondarribikoa.
22an: Borja Miranda Salaverroa, Donostika eta **Maider Olazabal Sarasola,** Hondarribikoa.
22an: Simon Calvo Chantre, Hondarribikoa eta **Maria Soledad Rodríguez Vallejo,** Gijongoa.
29an: Julio Diaz Cerezo, Hondarribikoa eta **Maria Luisa Echeverria Ugalde,** Gorlizekoa.
29an: Xabier Ceberio Urbieto, Hondarribikoa eta **Leire Personat Alvarez,** Hondarribikoa.



HERIOTZAK IRILAN

- 2an: Leon Balerdi Aranzasti,** 90 urtekoa, Amute auzoa
27an: Mari Carmen Hernandorena Juarros, 80 urtekoa, Jabier Ugarte kalea





Servicios de la vida diaria
Eguneroko bizitzako zerbitzuak

agertu.net

943 63 57 33

Badago eguneroko
gauzetarako behar
duzun guztia aurkituko
duzun toki bat

Profesionala, Segurua eta Zuzena

agertu.net "eguneroko bizitzako zerbitzuak" izenez ezagutzen denaren barruan zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen arteko topalekua da.

- Etxeko laguntza
- Nagusien eta haurren zainketa
- Lisatzea
- Ile apainketa etxean
- Janariak prestatzea
- Mantentze lanak eta konponketak
- etab.

gertu

creando mercado de la vida diaria
eguneroko bizimodutik merkatua sortuz



**Elkartu gure
Enpresa Taldearekin**

Hurrengo azoka
azaroaren 10ean





Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

EUSKO JAURLARITZA
GIARDANO ETA
HENRI LAIN SALA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS



**EUSKADIKO
KIROL
PORTUAK**
www.ekpsa.com

**PUERTOS
DEPORTIVOS
DE EUSKADI**

Llegamos a buen puerto

*Hondarribia
Donostia
Orre
Getaria
Bermeo*



www.doble-a.com



Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003



Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak

ERKA SUMINISTROS
ELECTRICOS



ERKA OSAGAI
ELEKTRIKOAK



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún